



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko maiatzaren 8a

45. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu bere gain har dezan, Nafarroako Aurrezki Kutxaren entitate sortzailea den aldetik, entitate horretatik geratzen diren aktibo, baliabide eta eskubide guztien titulartasuna. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da arbuia ditzan Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurriak. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren modalitate guztien eta erdi eta goi mailako prestakuntza ziklo guztien egitura bere horretan mantentzearen aldeko iritzia. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan 2012an izanen den Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearekin. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gaur egungo egitura mantentzeko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontuetan jaso dezan analisi bat, jakiteko zer bilakaera izanen duten diru-sarrerek balizko egoera makroekonomikoen arabera. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geriatría zerbitzua Ospitalegunean eskain dadin bere osotasunean. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, mendetasun-eskabideak baloratzeko eta onartzeko epeak betetzeari buruzkoa. Juan José Lizarbe Baztán jaunak egin (12. or.).
- Galdera, emakumeek haurdunaldia osasun-zerbitzu publikoaren barruan eteteko duten eskubideari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (13. or.).
- Galdera, jakiteko ea herritarren eskubideen aldeko jarrera hartuko den, hezkuntza, osasun eta gizarte-prestazioen arloko murrizketen aurka. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin (13. or.).
- Galdera, jakiteko ea presako neurriak hartuko diren, egoera irregularrean dauden etorkinen osasun-laguntzan iraungarritasuna ziurtatze aldera. Marisa de Simón Caballero andreak egin (14. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Legea, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzkoa**

Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuak neurriak ezartzen ditu hipoteken betearazpenerako prozedurak malgutzeko, gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dauden pertsonen kasuan etxebizitzaren utzarazpenak dakartzan arazoak arindu nahian. Errege lege-dekretu horretan, neurri horiek aplikatuko zaizkien zordunen gizarte-bazterketaren muga non den zehazten da, berandutza-korrituak mugatzen dira eta epaitegitik kanpoko betearazpenerako prozedurak aldatzen dira. Neurri horiekin batera, tributu arloko beste batzuk ere ezartzen dira, etxebizitzaren eskualdatzaileari kalterik ez eragiteko xedeaz.

Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitaterako egokitu ditu estatuko zerga arloko aipatutako neurriak. Lege proiektu hau hiru artikuluk eta azken xedapen batek osatzen dute.

Lehendabiziko artikulua xedapen gehigarri bat eransten dio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari, berrogeita hirugarrena. Bertan xedatzen

denez, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren 2. artikulua-ren aplikazio esparruan sartzen diren zordunek etxebizitza ordainean ematen dutenean, aukera hori aurreikusita baitago errege lege-dekretu horretan, emate horretatik sortzen den ondare-gehikuntza zerga ordaintzetik salbuetsirik egonen da.

Errege lege-dekretu horretan arautzen den ordainean emateak berarekin dakar etxebizitza finantza-entitateari eskualdatzea. Eskualdaketa hori eskualdatzailearen ondarearen osaketaren aldaketa da, eta ondare-gehikuntza edo murrizketa ekar dezake pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez. Tributu arauak salbuetsi egiten du gerta daitekeen ondare gehikuntza, ez ordea murrizketa.

Bigarren artikulua beste zenbaki bat eransten dio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bateginaren 35.I.B) artikuluari, hogeita seigarrena hain zuzen, eta bertan ezartzen du Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren babesean mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetan egindako nobazioak formalizatzeko eskritura publikoak salbuetsirik egonen direla egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik. Martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretu horrek hartutako neurrien ondorioz, nobazioak gertatuko dira mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetan, zeinak egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotaren menpe egonen baitira. Horren aurrean, horiek salbuestea ezartzen du aginduak.

Hirugarren artikulua ahalmena ematen dio Nafarroako Zerga Ogasunari errentarik gabeko bere konturako langileari dagokion ziurtagiria egi-

teko, bai eta azken zerga-ekitaldiko errenta ziurtagiria ere. Zordunak finantza-entitate hartzekodunaren aurrean frogatu ahal izan dezan bazterketaren mugan dagoela, hau da, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuaren 3.1 artikuluan aipatzen diren zirkunstantzietan dagoela, tributu arloko Administrazioak kasu batzuetan agiriak egin beharko ditu. Bada, Nafarroako Foru Komunitateari Estatuarekin izenpeturik duen Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan dagozkion eskumenak errespetatuz, Nafarroako Zerga Ogasuna izanen da ziurtagiri horiek eginen dituen.

Foru lege honekin batera, eta beronen osagarri, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Legea tramitatu da, zeinak, artikuluko horri 2. idatz-zati bat gehituta, aldatuta bat egin baitu hirilurren balio igoeraren gaineko zergan; aldatuta horrekin, zordunek etxebizitza ordainean ematean egiten dituzten eskualdaketatik, ondasun higiezin eskuratzen duen finantza-entitateak ezin izanen du, zergadunaren ordezkotza gisa, kargaren zenbatekoa zergadunari jasanarazi.

Azken xedapen bakarra legeak indarra hartzeko egunari buruzkoa da; legeak, hain zuzen ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Argi uzten da, hala ere, legean aurreikusitako ondorioak, arestian aipatu baitira, kontuan hartu beharko direla.

**1. artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari xedapen gehigarri bat eranstea, berrogeita hirugarrena. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari xedapen gehigarri bat erantsi zaio, berrogeita hirugarrena hain zuzen, zeinak 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren ondare-gehikuntzetan izanen baititu ondorioak. Hona testua:

"Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. Etxebizitza ordainean ematea. Ondare-gehikuntza salbuestea.

Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren

9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren 2. artikulua-ren aplikazio esparruan sartzen diren zordunek etxebizitza ordainean ematen dutenean, aukera hori aurreikusita baitago errege lege-dekretu horretako eranskinen 3. idatz-zatian, emate horretatik sortzen den ondare-gehikuntza zerga ordaintzetik salbuetsirik egonen da".

**2. artikulua.** Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bateginaren 35.I.B) artikuluari beste zenbaki bat eranstea, hogeita seigarrena. Testu bategina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bateginaren 35.I.B artikuluari –testu bategin hori apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen– beste zenbaki bat erantsi zaio, zeinak 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren zergapeko egintzetan izanen baititu ondorioak. Hona testua:

"26. Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren babesean mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetan egindako nobazioak formalizatzeko eskritura publikoak salbuetsirik egonen dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik".

**3. artikulua.** Ziurtagiriak egitea.

Nafarroako Foru Komunitateari Estatuarekin izenpeturik duen Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan dagozkion eskumenak erabilita, Nafarroako Zerga Ogasunak eginen ditu errentarik gabeko bere konturako langileari dagokion ziurtagiria eta azken zerga-ekitaldiko errenta ziurtagiria ere, zordunak entitate hartzekodunaren aurrean frogatu ahal izan dezan bazterketaren mugan dagoela; hau da, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuaren 3.1 artikuluan aipatzen diren zirkunstantzietan dagoela.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

## Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzekoa.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiengo osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko Foru Legea

Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitatera egokitzen ditu estatuan ezarritako neurri fiskalak; hain zuzen ere, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuan ezarritakoak. Etxebizitzaren eskualdatzaileari kalterik ez eragiteko xedeaz ezarritako neurri horien osagarri, aldatu beharra dago Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua. Lege horrek gehiengo osoa behar duenez, hala ezartzen baitute lege bereko 58. artikulua eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 259. artikulua, foru lege honen bidez onesten da aldaketa.

Hirugarren artikulua beste idatz-zati bat eranstean dio Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikuluari, bigarrena, hirilurren balio igoeraren gaineko zergari buruz. Foru Komunitatean, estatuan ez bezala, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Lege horren 174.1 artikulua arau orokor gisa ezartzen du lurren kostu bidezko eskualdaketatik eskura-

tzailea zergadunaren ordezkia izanen dela, baina eskualdatzaileari jasanarazi ahalko diola, betiere, kargaren zenbatekoa. Beraz, foru araudian, lurren kostu bidezko eskualdatzailea bada ere hirilurren balio igoeraren gaineko zergaren subjektu pasibo zergaduna, eskuratzailea zergadunaren ordezkia izanen da, eta kargaren zenbatekoa jasanarazi ahalko dio eskualdatzaileari. Gehituta-ko lerroaldeak ezartzen duenez, zordunek etxebizitza ordainean ematen badute, martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuak ematen duen aukera baliatuta, ondasun higiezinak eskuratzen duen finantza-entitateak, eskualdaketa horretan zergadunaren ordezkia bada ere, ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari.

Azken xedapen bakarra legeak indarra hartzeko egunari buruzkoa da; legeak, hain zuzen ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Argi uzten da, hala ere, legean aurreikusitako ondorioak kontuan hartu beharko direla.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikuluari beste idatz-zati bat eranstea, bigarrena.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 174. artikuluari beste idatz-zati bat erantsi zaio, bigarrena hain zuzen, zeinak 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren zergapeko egintzetan izanen baititu ondorioak. Hona testua:

"2. Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuaren 2. artikulua-ren aplikazio esparruan sarturik dauden zordunek arau horren beraren eranskinaren 3. idatz-zatian aurreikusitakoari jarraikiz etxebizitza ordainean ematean egiten dituzten eskualdaketatik, ondasun higiezinak eskuratzen duen finantza-entitateak, ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari".

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu bere gain har dezan, Nafarroako Aurrezki Kutxaren entitate sortzailea den aldetik, entitate horretatik geratzen diren aktibo, baliabide eta eskubide guztien titulartasuna.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura baten ondoriozkoa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu bere gain har dezan, Nafarroako Aurrezki Kutxaren entitate sortzailea den aldetik, entitate horretatik geratzen diren aktibo, baliabide eta eskubide guztien titulartasuna.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2012ko apirilaren 26ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak eta bere ordezkariak ez dute batere azalpenik eman Nafarroako Kutxaren bilakaeran eta amaieran buruz izan duten esku-hartze pertsonal nahiz organiko guztiari dagokionez. Izan ere, Caixabank S.A.ren akzioen parte-

hartze txiki bat bihurtu da Kutxa, eta argitu eta erantzun gabe gelditu dira prozedura horren alderdi ia guztiak, zeinaren ondorioz ondare handi baten galera obskurantista gertatu baita eta orobat galdu baita une honetan ezinbestekoa izanen litzatekeen finantza-baliabide bat.

Hamaika aldiz baliatu den aitzakia izan da Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmen bidezko entitate bat dela. Aitzakia hori behin eta berriro erabili da parlamentu-kontrolari itzuri egiteko, eta ez zen horrela izan beharko; aitzitik, Gobernuak Legebiltzarrari kontu emateko zioa izan beharko zukeen, errealitatean kontrakoa gertatu bada ere.

Argi dago azalpenak eta argibideak eman beharra dagoela arlo honetan, horixe baita, hain zuzen ere, gizarteak "klase politiko" gisa bere burua izendatzen duenari exijitzen diona.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere gain har dezan, Nafarroako Foru Komunitatearen izenean eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren entitate sortzailea den aldetik, entitate horretatik geratzen diren aktibo, baliabide eta eskubide guztien titulartasuna; zehazki, Caixabank, S.A. banku-entitateak Banca Cívica bereganatzeko operazioetatik heldu diren Caixabankeko akzioen titulartasuna, abian dagoen merkataritza-ko xergapen-operazioaren ondorioz.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezeztatu eta baliogabetu ditzan Estatuako Gobernuarekin eta haren ministroekin aurrezki kutxei buruz sinatuta dituen eta akordio guztiak.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du ikerketa batzorde bat sortzea, argitze aldera Nafarroako Kutxa likidatzeko prozesuari datxezkion erantzukizun politikoak nahiz beste edozein motatakoak, Caixabank, S.A. merkataritza-entitatearen akzioen parte txiki bat bihurtu ondoren Kutxa.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bere gain har dezan Nafarroa-

ko Kutxako langileen lanpostuen defentsan duen ardura eta entitate horretako ezarleen eskubideak, zeinak epe labur batean Banca Cívica kudeatu baititu eta une honetan Caixabanke kudeatzeko bidean baitaude.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an.

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da arbuia ditzan Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurriak.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da arbuia ditzan Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurriak"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da arbuia ditzan Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurriak**

Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurrien aurka dagoela.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua**

1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua. Izan ere, Parlamentuaren ustez, neurri horiek ez dute balio krisi ekonomiko larriari

aurre egiteko; aitzitik, lanpostu gehiago suntsitzea eta langabezia areagotzea ekarriko dute.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du banku publiko bat berreskuratzearen alde dagoela, gai izanen dena kreditua helarazteko familiei nahiz enpresa txikiei eta ekonomia produktiboari, eta ekonomia errealaren zerbitzuan egonen dena, ezen ez ekonomia espekulatiboaren zerbitzuan.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du gizarte-murrizketen aurka dagoela, eta oinarrizko zerbitzu publikoak sendotzea exijitzen du, hala nola osasuna, hezkuntza edo mendekotasuna.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren modalitate guztien eta erdi eta goi mailako prestakuntza ziklo guztien egitura bere horretan mantentzearen aldeko iritzia.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren modalitate guztien eta erdi eta goi mailako prestakuntza ziklo guztien egitura bere horretan mantentzearen aldeko iritzia". Horren jatorria da Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2012ko otsailaren 10eko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren modalitate guztien eta erdi eta goi mailako prestakuntza ziklo guztien egitura bere horretan mantentzearen aldeko iritzia**

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren egungo egitura –lau ikasturte– mantentzearen alde dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Batxilergoaren egungo egitura –bi ikasturte– mantentzearen alde dagoela.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren egungo egitura –lau ikasturte– mantentzearen aldeko jarrera har dezan Espainiako Gobernuaren aitzinean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Batxilergoaren egungo egitura –bi ikasturte– mantentzearen aldeko jarrera har dezan Espainiako Gobernuaren aitzinean.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du horren guztiaren defentsa aktiboa egin dezan gobernu zentralaren aitzinean.



6. Nafarroako Parlamentuak adierazten du gizarte-itun handi baten bermea izan behar duela Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren aldaketa orok, hauteskunde-emaitezatik heldu diren balizko alderdikierietatik at.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan 2012an izanen den Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearekin.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan 2012an izanen den Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearekin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan 2012an izanen den Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearekin**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Bat egin dezan Europako Parlamentuak eta Europar Kontseiluak 2012an abian jarri duten Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearen ospakizunekin eta jardurekin.

2. Txosten bat igor diezaion Adinekoen Estatu Kontseiluari, Nafarroan baliatutako politiketan oinarritutako ekarpen zehatzak eginen dituen Adinekoaren Estatutua taxutzeko.

3. Komunikazio estrategia bat gara dezan, Nafarroak Adinekoen Estatu Kontseiluari egindako proposamenak ezagutzera emateko, adinekoei bizi duten errealitatea eta dituzten beharriak ikusarazteko eta gizartea sentsibilizatzen lagunduko duten datu deskriptiboak buruz informatzeko.

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gaur egungo egitura mantentzen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gaur egungo egitura mantentzen."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gaur egungo egitura mantentzen.**

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gaur egungo egiturari euts diezaion, laugarren maila kentzea ekidinez, eta azterlan xehakatu bat egin dezan, Batxilergoaren iraupena hiru urtekoa izatera luzatu behar izateari edo ez izateari buruzkoa.

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontuetan jasotzen diren diru-sarrerekin balizko egoera makroekonomikoen arabera.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontuetan jasotzen diren diru-sarrerekin balizko egoera makroekonomikoen arabera."

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko urtarrilaren 27ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geriatría zerbitzua Ospitalegunean eskaintzen bere osotasunean.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geriatría zerbitzua Ospitalegunean eskaintzen bere osotasunean."

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko urtarrilaren 27ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila."

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko otsailaren 17ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, mendetasun-eskabideak baloratzeko eta onartzeko epeak betetze-ari buruzkoa**

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, mendetasun-eskabideak baloratzeko eta onartzeko epeak betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilari

Elena Torres andeak maiatzaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Batzordearen lan bilera batean, zeinean Nafarroako Mendetasunaren aldeko Plataformak zenbait gairi buruz informatu baitzuen, azpimarratu zen Departamentuak ez dituela betetzen mendetasun-eskabideak ebazteko epeak. Balorazio horiek eskatzen dituzten herritarrentzat oso garrantzitsua da mendetasuna albait azkarren onartzea; hortaz, ondokoa jakin nahi dugu:

- Departamentuak betetzen al ditu mendetasun-eskabideak baloratu eta onartzeari begira arauan ezarritako epeak? Ba al dago atzerapenik laguntzak edo zerbitzuak emateko epeei dagokionez?

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, emakumeek haurdunaldia osasun-zerbitzu publikoaren barruan eteteko duten eskubideari buruzkoa**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, emakumeek haurdunaldia osasun-zerbitzu publikoaren barruan eteteko duten eskubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak zer egingen du emakume nafarrei bermatze aldera haurdunaldia osasun-zerbitzu publikoak finantzatutako prestazioen barruan borondatez eteteko duten eskubidea?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

## **Galdera, jakiteko ea herritarren eskubideen aldeko jarrera hartuko den, hezkuntza, osasun eta gizarte-prestazioen arloko murrizketen aurka**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakiteko ea herritarren eskubideen aldeko jarrera hartuko den, hezkuntza, osasun eta gizarte-prestazioen arloko murrizketen aurka.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasan handiko galdera hau aurkeztu du, maiatzaren 10eko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nafar herritarren eskubideen aldeko jarrera hartuko al du, eta, horrenbestez, hezkuntza, osasun eta gizarte-prestazioen arloko murrizketen aurkakoa, hartara bat eginda Andaluziako eta EAeko autonomia erkidegoekin, bai bere jardun politikoari bai konstituziokontratasun-errekurtsoak aurkezteari dagokienez?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an.

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, jakiteko ea presako neurriak hartuko diren egoera irregularrean dauden etorkinen osasun-laguntzan iraungarritasuna ziurtatze aldera**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea presako neurriak hartuko diren egoera irregularrean dauden etorkinen osasun-laguntzan iraungarritasuna ziurtatze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak heldu den maiatzaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aplikatuko al dira Nafarroan apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuan Osasun Sistema Nazionalaren iraungarritasuna ziurtatze aldera ezarritako presako neurriak, egoera irregularrean dauden etorkinen osasun-laguntzari dagokionez?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an.

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero



